


HOMINIDOEN EBOLUZIOA



- Homo habilis.
- Homo erectus.
- Homo antecessor.
- Homo neanderthalensis.
- Homo sapiens.

HOMO HABILIS.

Homo habilis hominido espezie bat izan zen. Lehen aztarnak 1960an aurkitu zituzten Afrikako ekialdean (Tanzanian) Louis eta Mary Leakeyk. Twiggy izeneko buru-hezurra eta Cindy masai-hezurra famatu egin ziren, genero berri bati buruz hitz egiten hasi bait ziren.




Morfologia

Beso oso luzeak zituen hankekin konparatuz, eta buru-hezurraren handitze bat esperimentatu zuen, masailhezur txikitzearekin batera.


Garaiera txikikoa zen (1,2-1,6 metro).

masailezur fina eta kokotsa atzeratuta; pelvis eta femur oso modernoak, zutik ibiltzeko egokiak; prognatismo urria, australopitekoarena baino txikiagoa...




Bizimodua

Bipedoa zen, hots, zutik ibiltzeko gaitasuna zuen Erabilitako tresnei esker haragia jateko erraztasun handiagoa lortu zuten, baita fruituak txikitzeko ere. Tresnak erabili izanak ez du esan nahi Homo Habilisa ehiztaria zenik. Izan ere Habilisa belarjalea zela uste da, eta bere dieta hildako animalien haragiarekin osatzen zuela.




HOMO ERECTUS.

Homo erectus (Zutik ibiltzeko gai zen gizakia) iraungitako hominido bat da, duela 1,9 miloi eta 50.000 urte bitartean bizi izan zena. Lehenengo fosilak 1891 urtean aurkitu zituen Eugène Dubois izeneko mediku holandarrak. Gai zen lantzak, aiztoak eta beste hainbat tresna zurez, harriz nahiz hezurrez egiteko. Sua janaria prestatzeko erabili izanaren aztarnak ere aurkitu dira.



Mugimenduak.

Homo erectus dagozkion fosilak Afrikan (Tanzanian, Hegoafrikan eta Algerian), European (Alemanian, Espainian, Frantzian, Grezian eta Hungarian) eta Asian (Jaban eta Txinan) aurkitu dira, baina horietako askoren sailkapenak eztabaidak eragin ditu.



HOMO ANTECESSOR.

Homo antecessor, Europako espezie zaharrena da. Orain dela 800000 urte bizi izan zen. Izaki indartsuak, altuak eta burmuina normala baino txikiagoa. Beren aurpegiko morfologia, "Homo sapiens" bezalakoa zen. Izaki gehienek altuera 1,60 eta 1,85-ren artekoa zen, eta pisua, 60 eta 90 kilogramo artean.




HOMO NEANDERTHALENSIS.

Neanderthalgo gizakia edo neanderthalak, *Homo* generoko Pleistozenoko kide desagertu bat da. Neanderthal terminoa 1863an sortu zuen William King anatomistak. Esanahia «harana» da. Izen binomiala finkoa denez *Neanderthalensis* erabiltzen da, baina hizkera arruntean erdiko *h* hori erdara askotan kentzen da




Morfologia.

Haren garaiera *Homo sapiens*aren antzekoa zen, baina bai beso eta baita hankak ere motzak zituela esan dezakegu. Gihar sendoak zituzten, eta ondorioz pisu gehiago. Honek, hezurren bolumenean ere zerikusirik izan zuen. Hauen hezurak, potoloagoak izango liratezke. Gizaki indartsuak ziren. Garezuraren bolumenari dagokionez, gureak baino bolumen handiagoa zuen. 1500 eta 1600 c. c. bitartekoa.




Mugimenduak

Europako eta Asia zentraleko mendebaldean aurkitu dira aztarnak. Neanderthalak batzuetan gizakien azpiespezie gisa sailkatzen dira (*Homo sapiens neanderthalensis*) edo beste espezie baten eran (*Homo neanderthalensis*). Orain dela 250.000-28.000 urte bitarteko epean bizi izan zen.




HOMO SAPIENS.

Homo sapiens (latinetik ezagutzen duen gizakia) primate bipedo bat da, Hominidae familiaren barnean (gorila, txinpantze eta orangutanak barnebiltzen dituena). Beste ugaztunekin alderatuta eta era berean beste ornodun guztiekin, burmuin tamaina erlatibo oso handia du, arrazonatzea, hizkuntza eta barne bizitza edukitzea baimentzen diona.



Morfologia.


Giza gorputza motak oso aldakorrek dira. Nahiz eta gorputzaren tamaina oso determinaturik dagoen geneengatik dieta eta ariketa fisikoak ere asko eragiten dute honen garapenean. Gizakiaren batez besteko altuera 1,5-1,8 metro artekoa da baina oso aldakorra da lekuri leku. Gizakiak guztiz gai dira bi hanken gainean ibiltzeko eta modu horretan eskuak libre uzten dira, objektuak manipulatzeko baimenduz.



Anatomia.

Giza gorputza, berrehun hezurretik gora, ehun artikulazio eta seiehun eta berrogeita hamar gihar, elkarrekin koordinatuak eta batera funtzionatzen duten egitura da. Gorputzak haren jarrera eutsi, higitu eta beste ekintza asko egin ahal ditu atal guztien elkarlanarekin. Hau guztia aztertzen duen zientzia da giza anatomia.





Migrazioa